

Arabak eta Gasteizek gastronomia, kultura eta kirol arloetako tokiko erreferenteen eskutik egingo dute promozioa Fiturren

Diego Guerrero sukaldariak, Fernando Albizu aktoreak, Pablo Laso entrenatzaileak eta Patxi Peula patinatzaileak aldarrikatuko dute lurraldearen potentzial turistikoa

Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 14a.- Arabak eta Gasteizek eberen erakargarrien berri emango dute FITUR turismo nazioarteko azokan, Arabako gastronomia, kultura eta kirol arloetako erreferenteen laguntzarekin; urtarrilaren 19tik 23ra bitartean egingo da azoka, Madrilgo IFEMAREN instalazioetan. Diego Guerrero sukaldariak, Fernando Albizu aktoreak, Pablo Laso saskibaloi-entrenatzaileak eta Patxi Peula patinatzaileak aldarrikatuko dute lurraldearen potentzial turistikoa.

Bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren foru diputatu Cristina Gonzálezek eta lehen alkateorde eta Ekonomia Sustapenaren zinegotzi Mainer Etxebarriak aurkeztu dituzte prentsaren aurrean erakunde biek ekitaldi horretara eramango duten eskaintzaren ildo nagusiak. Aurtengoa 42. edizioa izango da, eta ehun herrialdetako baino gehiagoko enpresek eta destinoek hartuko duten parte.

Gonzálezek eta Etxebarriak erakundeen arteko koordinazioak duen "garrantzia" azpimarratu dute "Araba eta Gasteiz helmuga seguru eta iraunkor gisa" kokatzera bideratutako estrategia turistikoa eraginkortasunez garatzeko, "familia guztiarentzako kalitateko eskaintza batekin, natura oparoan, kultura- eta historia-ondare ikusgarrian eta lehen mailako enogastronomia batean oinarrituta."

Aldundiak eta Udalak helmugaren baterako aurkezpena egingo dute Euskadik Fiturren duen standean, gastronomia, kultura eta kirol arloetako erreferente gasteiztarren laguntzarekin; izan ere, Diego Guerrero sukaldariak, Fernando Albizu aktoreak, Pablo Laso saskibaloi-entrenatzaileak eta Patxi Peula patinatzaileak aldarrikatuko dituzte lurraldeko eta hiriburuko turismo-baliabide nagusien balioak.

Aurkezpenean, gainera, umore-ukitua jarriko du Xavier Deltell aktore eta aurkezleak, azken egunetan Gasteiz, Guardia eta Gesaltza Añanako hainbat lekutan ibili baita elkarrizketak eta bideoak grabatzen. Ekitaldi hori, Euskadiren standean programatutako aurkezpen guztiak bezala, *streaming* bidez emango da urtarrilaren 21ean, 11:30ean, Eusko Jaurlaritzaren Irekia atariaren bidez.

Turismo-enbaxadoreen

Egun bat lehenago, urtarrilaren 20an (osteguna), ordu-leku beretan, Arabak eta Gasteizek bertako "turismo-enbaxadoreen" izenak ezagutaraziko dituzte: telebistarekin lotutako pertsona ospetsuak dira, zeinek urtean zehar lurraldearen erakargarrien berri emango baitute estatu mailan. Iaz Mamen Mendizabal kazetariak eta Alberto Chicote sukaldariak bete zuten egiteko hori, Matías Prats, Jesús Álvarez edo Sandra Sabatés bezalako profesionalen lekukoa jaso ondoren.

Egun horretan, 16:30ean, Gasteizko Udalak gailu mugikorretarako aplikazioa aurkeztuko du, "Galaren Florida, V-G" izenekoa. Izenak Gala Plazidiari egiten dio aipamen, Ataulfo lehen errege godoaren emazte eta Teodosio I.a enperadore erromatarraren alaba izan zenari. Gasteizko parke enblematikoa modu birtualean bisitatzea ahalbidetuko du aplikazioak, eta bertako txokoetan barrena 3D betaurrekoak erabiliz ibiltzea.

Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez eskainiko da, eta errealitate areagotuko pista-joko berezi batean parte hartzeko aukera ere emango du; ingurune erreal baten gainean irudiak gainjartzea ahalbidetzen du teknologia horrek.

Arabako Foru Aldundiak, berriz, lurraldeaz aire zabalean gozatzeko turismo-proposamen berriak estreinatzeko baliatuko du Fiturren 'bozgorailua'.

Azkenik, Fitur publiko orokorarentzat irekita dagoen asteburuari begira, bi erakundeek *photocall* bat antolatu dute, Andre Maria Zuriaren plazan Vitoria-Gasteiz hitzak osatzen dituen heskaian oinarritua, *European Green Capital* izendapenaren hamargarren urteurrena ospatzeko. Photocall horretan argazkiak ateratzen dituzten pertsonak Gasteiz eta Arabaz gozatzeko lau astebururen zozketa batean parte hartu ahalko dute.